



Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren tarteko ebaluazioa: 2022-2023

#Vgazte plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Aurkibidea

1. SARRERA	2
1.1. Aurrekariak eta testuingurua	3
1.2. Ebaluazioaren helburuak eta aplikatutako metodologia	7
1.3. Txostenaren egitura	8
2. EMAITZA NAGUSIAK	9
2.1. Ekintzen gauzatze-maila	10
2.2. Aurrekontuaren gauzatze-maila	15
2.3. Helburuen betetze-maila	19
2.4. Estaldura-maila	20
2.5. V. Gazte Planaren adierazleak	21
3. BALORAZIOA ETA GOMENDIOAK	22
3.1. Ebaluazio-irizpideen balorazioa	23
3.2. Gomendioak	24



1.

SARRERA

1. Sarrera

1.1. Aurrekariak eta testuingurua

2022. urtea Eusko Jaurlaritzaren 2022-2026 V. Gazte Planak zehaztutako estrategiaren hedapenaren hasiera izan zen. Plan hau Eusko Jaurlaritzak gazteekin duen konpromisoaren eta ekintzaren jarraipena da, eta helburu nagusia gazteen emantzipazioaren alde lan egitea da, gazteek bizi-proiektuak eraiki eta garatu ahal izan ditzaten eta, aldi berean, proiektu kolektiboetan parte hartzeko gaitasuna gara dezaten.

Aurrekari gisa, I. Gazte Plana (1999-2001), II. Gazte Plana (2002-2005), III. Gazte Plana (2014-2016) eta IV. Gazte Plana (2018-2021) aipatu behar dira, bai eta Gazteriari buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legea ere. Lege horren hiru ardatz nagusiak honako hauek dira: gazte-sistema eta -zerbitzuak sendotzea, gazteen parte-hartzea sustatzea eta emantzipazio-prozesuak sustatzea, batez ere adina aurreratzaren helburua azpimarratuz, 2030eko hamarkadan 28 urte izan daitezzen.

2022-2026 aldirako V. Gazte Planak Eusko Jaurlaritzak gazte-politika integrala garatzeko eta gazteen emantzipazioa bultzatzeko politika berri bat sustatzeko hartutako konpromisoari erantzuten dio. Planak 4 ardatz estrategiko, 15 arlo, 33 helburu eta 73 jarduera-ildo ditu. Jarraian, V. Gazte Planaren egitura osoa jasotzen da.



1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoa
1. ENPLEGUA	1.1. Gerturatze eta abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan	1.1.1. Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea 1.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala 1.1.3. Talentua itzultzen eta erakartzen laguntzeko programak ezartzea eta indartzea
	1.2. Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea	1.2.1. Lehen lan-esperientziak bultzatzea 1.2.2. Esperientzia duten gazteak kontratatzeko laguntza 1.2.3. Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan 1.2.4. Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea 1.2.5. Enplegarritasuna aktibatzeko eta hobetzeko prestakuntza indartzea
	1.3. Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea	1.3.1. Laneko osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea 1.3.2. Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehar-tasa prebenitzeko
	1.4. Gazte ekintzaileen kopurua handitzea	1.4.1. Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean 1.4.2. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia sustatzea 1.4.3. Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailetza sustatzea
	1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea	1.5.1. Langabezian eta egoera zaurgarrian dauden gazteen prestakuntza eta gaikuntza hobetzea 1.5.2. Orientazioa eta laguntza espezifikoak indartzea
	1.6. Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea	1.6.1. Enplegurako sarbidean eta lanbide-sustapenean aukerak parekatzeko neurriak hartzea 1.6.2. Emakumeen eta gizonen soldatak parekatzeko ekintzak bultzatzea 1.6.3. Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea
2. ETXEBIZITZA	2.1. Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea	2.1.1. Etxebizitza babestuaren lehentasuneko erreserba ezartzea 2.1.2. Laguntza ekonomikoen sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea
3. ERRENTA	3.1. Errenta erabilgarria hobetzea	3.1.1. Gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak ezartzea
4. KOHESIOA	4.1. Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	4.1.1. Diru-sarrerak bermatzeko tresnen bidez oinarritzko premiak estaltzeko behar beste baliabide bermatzea 4.1.2. Kalteberatasun-egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak bultzatzea
5. ERRESILIENTZIA	5.1. Emantzipaziorako kultura-eraldaketa bultzatzea	5.1.1. Emantzipazio-prozesuan aholkularitza- eta laguntza-ekintzak indartzea

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoa
6. OSASUN INTEGRALA	6.1 Osasun mentala eta emozionala hobetzea	6.1.1. Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza 6.1.2. Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoeretarako
	6.2. Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean, eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea	6.2.1. Tabakoaren, alkoholaren, cannabisaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.2. Jokoari eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.3. Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa
	6.3. Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea	6.3.1. Heziketa afektibo-sexuala bultzatzea 6.3.2. Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko neurriak indartzea
	6.4. Ohitura osasungarriak sustatzea	6.4.1. Elikadura osasungarria sustatzea 6.4.2. Jarduera fisikoa eta aisialdi osasungarria sustatzea
7. HEZKUNTZA	7.1. Aukera-berdintasunean aurrera egitea	7.1.1. Derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketak egiteko eta amaitzeko neurriak hartzea, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen artean 7.1.2. Eskola inklusiboa, hezkidetzakoa eta multikulturala sustatzea 7.1.3. Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arreta
	7.2. Berdintasunerako eta arrisku-egoeren prebentziorako hezteak	7.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa 7.2.2. Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza
	7.3. Gazte eleaniztun gehiago lortzea	7.3.1. Hezkuntzaren eremu formalean euskara sustatu eta indartzea 7.3.2. Hizkuntza-gaitasunak garatzea beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa
	7.4. Ikertzaile gazteen presentzia handitzea	7.4.1. Ikerketa-bokazioak bultzatzea etapa goiztiarretatik 7.4.2. Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza, bereziki emakume ikertzaileentzako
8. KULTURA ETA EUSKARA	8.1. Kulturaren kontsumoa eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak bultzatzea	8.1.1. Kultura-jarduerak sustatzea 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak bultzatzea 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea
	8.2. Euskararen erabilera sustatzea	8.2.1. Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea eta kultura-produktuen euskarazko kontsumoa sustatzea 8.2.2. Euskara ikusarazten eta balioesten duten ekimenak bultzatzea
9. AISIA ETA DENBORA LIBREA	9.1. Aisialdian hezkuntza bultzatzea	9.1.1. Aisialdi hezitzailean parte hartzen duten eragileen sistema babestea eta indartzea
		9.1.2. Aisialdiko eta denbora libreko alternatibak sustatzea

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoa
10. PARTAIDETZA	10.1. Gazteen parte-hartzea eta aintzatespena bultzatzea	10.1.1. Gazteek parte hartzeko eredu eta elkarrizketa-gune berriak bultzatzea 10.1.2. Gazte asoziazionismoaren ekimenak babestea 10.1.3. Gazte-boluntariotza bultzatzea 10.1.4. Talentu gazteen aintzatespena indartzea
11. BERDINTASUNA	11.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea	11.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea gizarte osoan 11.1.2. Emakumeen eta gizonen kontziliazio erantzunkidea bultzatzea
	11.2. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	11.2.1. Sentsibilizazio- eta prebentzio-neurriak hartzea (zero tolerantzia) 11.2.2. Arreta integrala eta kaltearen konponketa indartzea
	11.3. Emakumeak ahaldundzea	11.3.1. Emakume gazteen ahaldundze pertsonalerako eta kolektiborako laguntza 11.3.2. Emakume gazteek eremu eta gune guztietan parte har dezaten bultzatzea
12. ANIZTASUNA	12.1. Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea	12.1.1. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta bermatzeko neurriak bultzatzea
	12.2. Aniztasun funtzionala txertatzea	12.2.2. Irisgarritasun unibertsala eta bizimodu independentea sustatzea
13. BIZIKIDETZA	13.1. Indarkeria eta tratatu txar egoerak errotik kentzea	13.1.1. Gurasoen aurkako indarkeriaren eta tratatu txarren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.2. Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.3. Aisialdian, kirolean eta kalean indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea
	13.2. Balioetan hezte	13.2.1. Herritartasun globalerako, giza eskubideetarako, bizikidetzarako eta aniztasunerako hezkuntza sustatzea
14. KLIMA-ALDAKETA	14.1. Jasangarritasunarekin eta planetaren zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago izatea	14.1.1. Ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua bultzatzea 14.1.2. Mugikortasun jasangarria sustatzea

4. ARDATZA: BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoa
15. EZAGUTZA ETA LANKIDETZA	15.1. Gazteen egoera hobeto ezagutzea eta ebaluatzea	15.1.1. Euskadiko gazteei buruzko azterlanak egitea 15.1.2. Gazte-politiken ebaluazioa eta jarraipena 15.1.3. Gazteekin lan egiten duten profesionalen ezagutza eta prestakuntza zabaltzea
	15.2. Gazteei informazioa eta aholkularitza ematea	15.2.1. Gazteentzako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen laguntzea
	15.3. Lankidetzaren eta elkarlana hobetzea gaztearen arloan	15.3.1. EGKren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea 15.3.2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko partaidetza-guneak sustatzea

1.2. Ebaluazioaren helburuak eta aplikatutako metodologia

Txosten honek **V. Gazte Planaren Tarteko Ebaluazioaren** emaitzak jasotzen ditu, programazioan aurreikusitako ekintzak benetan gauzatu diren ikusteko, eta ezarritako helburuen betetze-mailaren eta aurrekontuan jasotako gastuaren gauzatze-mailaren aurrerapen gisa. Erreferentziako aldia Planaren indarraldiko lehen bi urteak dira (2022 eta 2023), eta horietarako ebaluazio-datuak itxita daude txosten hau egiteko unean.

Jarraipen- eta ebaluazio-prozesua Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren datuak biltzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko berariaz diseinatutako tresna informatikoaren bidez egin da. Erabilitako metodologia bildutako informazioa (datu kuantitatiboak eta informazio kualitatiboak) eta Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren parte hartzen duten sailek, zuzendaritzek eta erakundeek emandako adierazleak aztertzean datza.

Metodologikoki, kanpoko ebaluazioa da, txosten hau Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren gauzatzeko ardura duten erakunde edo eragileetatik kanpoko talde tekniko independente batek egin baitu.

Bestalde, 2022-2023 denbora-esparruan V. Gazte Planaren tarteko ebaluazioa egiteko erabilitako balorazio-irizpideak honako hauek dira:

- Jarduna: ikuspegi bikoitza kontuan hartuta, honako hauek barne: 1) programatutako ekintzak egitea eta 2) aurrekontua gauzatzea, eskura dauden baliabideen erabilpenaren neurri gisa.
- Eraginkortasuna: lortu nahi diren helburuen eta ekintza bakoitzerako ezarritako xede-balioetan lortutako emaitzen arteko erlazio gisa.
- Estaldura: egindako ekintzen irismena erakusten du, onuradunen bolumenaren arabera. Irizpide horrek kontuan hartuko du, halaber, gazteei berariaz zuzendutako ekintzen kopurua.

Zehazkiago, tarteko ebaluazio honek honako galdera hauei erantzuten die:

- Ekintzak programazioan planifikatu bezala garatzen ari al dira? Zein da programatutako ekintzen aurrerapen- edo gauzatze-maila?
- Programatutako ekintzak abian jartzeko erabilitako bitartekoei dagokienez, zein da aurrekontuaren gauzatze-maila?
- Gazteen kolektibora iristen ari da?
- Lortzen ari al dira munta-adierazleetan ezarritako xede-balioak? Zein mailatan betetzen ari dira ekintza bakoitzerako planteatutako helburuak?

Azkenik, azpimarratu behar da txosten hau Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren Sailarteko Batzordean aurkeztuko dela, baliozkotu dezan, gazteriaren arloko ekintzen garapena eta aplikazio eraginkorra bermatzen duen koordinazio-organo gisa, eta, gainera, jarduera horiek sustatzeko ardura duen organoa ere bada.

1.3. Txostenaren egitura

Txosten honen edukia hiru kapitulutan egituratuta dago, eta sarrerako kapitulu hau Eusko Jaurlaritzaren 2022-2026 V. Gazte Planaren testuingurua eta aurrekariak ezartzean oinarritzen da, bai eta Planaren tarteko ebaluazioarekin lotu nahi diren helburuak eta txosten hau egiteko erabilitako metodologia azaltzean ere.

Bigarren kapituluan, V. Gazte Planaren indarraldiko lehen bi urteei (2022 eta 2023) buruzko tarteko ebaluazioaren emaitza nagusiak aurkezten dira. Horrela, analisisia tarteko etapa honetan egiten da, eta helburua honako hauek ezartzea da:

- Programatutako ekintzen gauzatze-maila.
- Aurrekontuaren gauzatze-maila.
- Ezarritako helburuen eta xede-balioen eraginkortasun-maila edo betetze-maila.
- Ekintzen estaldura-maila, onuradun izan diren gazteei dagokienez.

Bigarren kapitulu hau Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren esparruan definitutako jarraipen-adierazleen panelarekin amaitzen da. Kontuan hartutako adierazle bakoitzerako, txosten hau egiteko datan eskuragarri dagoen azken balioa zehazten da, baita 2026rako ezarritako helburu-balioarekiko lortutako betetze-maila ere.

Hirugarren eta azken kapituluan, V. Gazte Planaren tarteko ebaluaziorako erabilitako ebaluazio-irizpideen betetze-maila baloratzen da, erregistratutako jarduna, eraginkortasuna eta estaldura oinarri hartuta. Azkenik, kanpoko talde ebaluatzaileak V. Gazte Planaren garapenean aurrera egiteko egindako gomendioak jaso dira, tarteko ebaluazio honetan V. Gazte Planaren indarraldia amaitu arte landu beharreko hobekuntza-puntuak aurreratuz.



2.

EMAITZA NAGUSIAK


2. Emaita nagusiak

2.1. Ekintzen gauzatze-maila

Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren esparruan egindako ekintzek erakusten dutenez, 2022an eta 2023an 262 eta 265 ekintza egin dira, hurrenez hurren, Plana indarrean egongo den lehen bi urteetarako eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta. Emaita horiek erakusten dutenez, ekintzen gauzatze-maila handia da hasierako aurreikuspenarekin alderatuta, bi ekitaldietarako programatutako ekintzen % 93,2 eta % 96,4 gauzatzea lortu baita.

2022-2023 aldiari dagokion balantzeak 264 ekintzako batez besteko¹ bolumena ezartzen du, eta gauzatze-maila % 94,6koa da.

2.1 grafikoa V. Gazte Planean egindako ekintzen kopuruaren bilakaera, 2022-2023



Ardatz estrategikoen arabera, aipatzekoa da 2022tik 2023ra bitartean egindako ekintza gehienak V. Gazte Planaren lehen bi ardatzetan biltzen direla, 1. ardatzari "Emantzipazioa (Bizi)" eta 2. ardatzari "Garapena (Gozatu)" dagozkienak, hain zuzen ere. Bi horien batez besteko bolumena 92 eta 90 ekintzakoa da, hurrenez hurren. 3. ardatzak, "Eragina (Eraldatu)" izenekoak, aztertutako aldian (2022-2023) egindako 54 ekintza hartzen ditu batez beste, eta horiei Behaketa eta Koordinazioko 4. ardatzean gauzatutako 29 ekintzak gehitu behar zaizkie.

¹ Azterketarako ez da bi ekitaldien batuketa kontuan hartu, gauzatutako ekintza gehienak jarraipenezkoak baitira eta ekitaldi bakoitzean banan-banan zenbatzen dira; beraz, ez litzateke aztertutako biurtekoan egindako jardueren bolumenaren neurri zorrotza izango.


Horrela, 1. eta 2. ardatzek V. Gazte Planaren esparruan egindako ekintzen herena baino zertxobait gehiago biltzen dute (guztizkoaren % 34,7 eta % 34,0, hurrenez hurren); hamarretik bi (% 20,3) 3. ardatzarekin "Eragina (Eraldatu)" bat datoz, eta, azkenik, 4. ardatzak ("Behaketa eta koordinazioa") 2022tik 2023ra bitartean egindako hamar ekintzatik bat hartzen du (% 11,0).

2.1 taula V. Gazte Planaren ardatzen arabera egindako ekintzak, 2022-2023

	2022	2023	Batez beste 2022-2023	
			Kopurua	%
1. ardatza Emantzipazioa (Bizi)	91	92	92	34,7
2. ardatza Garapena (Gozatu)	93	86	90	34,0
3. ardatza Eragina (Eraldatu)	57	50	54	20,3
4. ardatza Behaketa eta Koordinazioa	21	37	29	11,0
Guztira	262	265	264	100,0

Azken batean, adierazi behar da ekintzen gauzatze-maila oso handia dela V. Gazte Planaren ardatz estrategiko bakoitzean. Zehazki, 1. ardatzean, hasiera batean programatutako 98 jarduketetatik 92 ezarri dira, hau da, % 93,9ko gauzatze-maila. 2. ardatzean betetze hori % 97,8ra igotzen da (programatutako 92tik 90 ekintza egin dira), eta 3. eta 4. ardatzetarako % 94,7an eta % 90,6an kokatzen da, hurrenez hurren. Horrela, V. Gazte Planaren ardatz estrategiko bakoitzean aurreikusitako ekintzen % 90 baino gehiago gauzatzea lortu da.

2.2 grafikoa V. Gazte Planaren ardatzen arabera programatutako eta egindako ekintzak, batez bestekoa 2022-2023



V. Gazte Planaren egitura osatzen duten arloen arabera xehatutako informazioak erakusten duenez, arlo nagusia, erreferentziako biurtekoan (2022-2023) egindako ekintza-bolumen handiena duena, Enpleguari dagokio (79 ekintza), eta, batez ere, "Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea" (33 ekintza) eta "Gazte ekintzaileen kopurua handitzea" (22 ekintza) helburu estrategikoetara bideratuta dago.

Halaber, Hezkuntza arloa nabarmentzen da (35 ekintza), "Hezkuntza-sisteman aukera-berdintasunean aurrera egiteko" (15 ekintza) eta "Berdintasunerako eta arrisku-egoerei aurrea hartzeko" (8 ekintza) ezarritako ekintzetan oinarrituta.

Arlo horiei Osasun Integrala (26 ekintza), Kultura eta Euskara (24 ekintza) eta Berdintasuna (21 ekintza) gehitu behar zaizkie, kontuan hartutako aldian 20 ekintza baino gehiago egin baitira (2022-2023 batez bestekoa). Arlo bakoitzean egindako ekintzen helburu nagusiak honako hauek izan dira: Osasun Integrala, "Gazteen artean arrisku-portaerak eta/edo adikzioak prebenitzea (substantziarekin eta substantziarik gabe) eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea" (15 ekintza); Kultura eta Euskara, "Euskararen erabilera sustatzea" (16 ekintza) eta Berdintasuna, "Emakumeen eta gizonen berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea" (11 ekintza).

Gainerako arloek ekintza gutxiago izan dituzte, eta nabarmentzekoak dira Klima Aldaketa (12 ekintza) eta Bizikidetzak (11 ekintza) arloak.

2.2 taula V. Gazte Planeko arloen arabera egindako ekintzak, 2022-2023

	2022	2023	Batez beste 2022-2023	
			Kopurua	%
1. Enplegua	81	76	79	29,8
2. Etxebizitza	3	3	3	1,1
3. Errenta*	0	0	0	0,0
4. Kohesioa	5	11	8	3,0
5. Erresilientzia	2	2	2	0,8
6. Osasun integrala	28	24	26	9,9
7. Hezkuntza	39	30	35	13,1
8. Kultura eta Euskara	23	25	24	9,1
9. Aisia eta denbora libre	3	7	5	1,9
10. Partaidetza	8	7	8	2,8
11. Berdintasuna	20	21	21	8,0
12. Aniztasuna	3	2	3	0,9
13. Bizikidetzak	12	9	11	4,2
14. Klima-aldaketa	12	11	12	4,4
15. Ezagutza eta lankidetzak	21	37	29	11,0
Guztira	260	265	264	100,0

* "Errenta" arloak ez du jarduerarik erregistratu 2022an eta 2023an, baina adierazi behar da 2024ko programazioan badagoela eremu horretan jasotako ekintza bat.

Bestalde, honekin batera doan koadroan V. Gazte Planaren garapenean inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako sail, zuzendaritza eta erakundeek zerrenda jasotzen da, euskal gazteentzako ekintzak abian jarri. Eragile bakoitzarentzat, 2022an eta 2023an egindako jardueren bolumena zehazten da, biurteko horretarako batez bestekoarekin batera. Honela:

- Lehendakaritza (43 eta 51 ekintza) eta, zehazkiago, Gazteria Zuzendaritza (40 eta 48 ekintza 2022an eta 2023an) dira biurteko horretan ezarritako ekintza kopuru handiena erregistratzen dutenak.
- Ondoren, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila dago, batez ere Familien eta Haurren Zuzendaritzak egindako lanean oinarrituta. 2022an eta 2023an, hurrenez hurren, gazteentzako 20 eta 22 ekintza egin ziren.
- Halaber, Lan eta Enplegu Saila nabarmentzen da, Lanbidek gauzatutako ekintzen bidez (27 eta 24 ekintza, 2022an eta 2023an).


2.3 taula

V. Gazte Planean inplikaturako eragileek gauzatutako ekintzak, 2022-2023

Saila/Zuzendaritza	2022	2023	Batez beste 2022-2023
Lehendakaritza	43	51	47
Kanpo Harremanen Zuzendaritza	1	1	1
Gazteria Zuzendaritza	40	48	44
Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza	1	1	1
Europar Batasunerako Zuzendaritza	1	1	1
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	39	45	42
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza	6	6	6
Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza	8	10	9
Kultura Ondarearen Zuzendaritza	3	4	4
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza	15	15	15
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza	7	10	9
Garapen Ekonomikoa, Jasangarritasuna eta Ingurumena	27	21	24
Basquetrade	2	2	2
Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza	1	0	1
Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuz.	5	3	4
Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	8	7	8
Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza	2	2	2
Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza	2	2	2
HAZI	7	5	6
Hezkuntza Saila	38	31	35
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza	14	8	11
Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza	2	3	3
Ikerketa Zuzendaritza	3	3	3
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza	5	5	5
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza	1	1	1
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza	13	11	12
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	41	48	45
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Elankidetza)	0	1	1
Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza	3	3	3
Familia eta Haurren Zuzendaritza	20	22	21
Justizia Zuzendaritza	2	3	3
Migrazio eta Asilo Zuzendaritza	2	3	3
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	3	3	3
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea	11	13	12
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	5	5	5
Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	2	2	2
Etxebizitzarako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuz.	3	3	3
Osasun Saila	15	10	13
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza	10	7	9
Osakidetza	5	3	4
Segurtasun Saila	10	12	11
Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza	2	2	2
Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza	3	5	4
Ertzaintzaren Zuzendaritza	2	2	2
Trafiko Zuzendaritza	3	3	3
Lana eta enplegua	41	39	40
Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza	3	3	3
Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza	5	5	5
Lanbide	27	24	26
OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	6	7	7
Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	3	3	3
Merkataritza Zuzendaritza	1	1	1
Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	1	1	1
Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	1	1	1
Guztira	262	265	264

Azkenik, esan behar da urtero egon ohi dela ekintza-bolumen jakin bat, ekitaldi bakoitzari dagokion plan operatiboan programatu arren, azkenean ez dena egiten arrazoi desberdinak direla medio. 2022an eta 2023an, egin gabeko jarduketan batez besteko bolumena 15 da, eta programatutako ekintza guztien % 5 baino ez da.

2.3 grafikoa V. Gazte Planean egin ez diren ekintzen bolumenaren bilakaera, 2022-2023



Jarraian, biurteko horretan egin ez diren ekintza batzuk zehazten dira, informatzaileek ez egiteko adierazitako arrazoiarekin batera:

Ekintzaren izena	Arrazoa
Ameslariak programa: gazteak atxikitzeko, erakartzeko, itzultzeko eta konektatzeko ekimenak.	Programa honetako ekimenak GAZ zerbitzuan txertatzen dira.
Diru-laguntza izenduna Deustuko Unibertsitateari, gazte-ibilbideei buruzko jakintza kudeatzeko programa garatzeko.	Erakundeak ez du dirulaguntzen proiekturik aurkeztu.
BEK beka	Espazio falta Covid-19 murrizketen eskakizunengatik
Ikasleen bisitak Osalanera, laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzeko	Bisitak bertan behera geratu ziren Covid-19aren ondorioz
Profesional gazteek arrantza-ontzien jabetza eskuratzeko egiturazko laguntzak	Eskaririk eza
Gazteen emantzipazioaren arloko erronka demografikoari lotutako jarduerak.	Ez da ekintza hori egin, baina bat definitu eta sartu da 2023rako "Gazteen emantzipazioaren arloko ekimen eta proiektu pilotuak" jardueran.
Kultura Ondarea Saria 2022	COVID 19aren ondorioz, saria bertan behera geratu zen.
"Gazteak eta osasun fisiko eta mentala" ikerketa	Ikerketa ez da egin beste ikerketa-arlo batzuei lehentasuna eman zaielako.
Gazte-politikei buruzko jardunaldiak.	2023ra atzeratu da.
EAEko gazte-ekipamenduen sarea tokiko eremuan sustatzeko dirulaguntzak	Gazteriaren Euskal Legea onartu ondoren, gazte-ekipamenduak egokitzea eta hornitzea tokiko administrazio-erakundeen eskumena da, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak itxi egiten du esku-hartze ildo hori.
Diru-laguntza izenduna Deustuko Unibertsitateari, gazte-ibilbideei buruzko jakintza kudeatzeko programa garatzeko.	Ez da ekintza egin, 2024ra arte atzeratu da.
Gazteak kanpo-harremanen arloan prestatzeko beka	Deialdia hutsik geratu zen
Ikasleen bisitak Osalanera, laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzeko	Pandemiaren ondorioz, 2020an bisitak bertan behera geratu ziren eta 2023an etenda jarraitu dute
Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko zientzia-, teknologia- eta enpresa-ingurunean ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak	Beste deialdi batzuen izapidetzean metatutako atzerapenak eragotzi egin zuen hau abian jartzea
Aisialdi Hezitzailearen Estrategia bultzatzeko ekimenak	Aurreikusitako ekimenak 2024ra atzeratu dira
Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa.	Araudia egiteke dago oraindik
Confint programa	Ez da egin eta jada ez da egingo
Euskadiko gazteek erakundeekin duten harremanari buruzko azterlana	Gazteen osasun mentalari buruzko beste ikerketa batek ordezkatu zuen
Gazte-politikei buruzko jardunaldiak.	Toki-administrazioetako hauteskunde-prozesuak zaildu egin du jarduera hori egitea 2023an.


2.2. Aurrekontuaren gauzatze-maila

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren esparruan 2022an eta 2023an egindako² jardueren aurrekontu-gauzatzea aztertzen da. Erabilitako erreferentzia gazteei zuzendutako aurrekontuaren zenbatekoa da, kontuan hartuta Gazte Planean jasotako jardueren zati bat beste kolektibo batzuei ere zuzenduta dagoela. Hori dela eta, gazteei dagokien jarduketaren aurrekontu osoaren zatia ezartzen da, eragile laguntzaileek egindako esleipenetik abiatuta, edo, hala badagokio, esleipen hori kalkulatzeko da, gazteek EAEko biztanleria osoaren gainean duten ehunekoa³ aplikatuta. Kontuan hartu beharreko beste kontu bat da Gazte Planean jasotako ekintza batzuek ez dutela aurrekontu-esleipen espezifikorik, gastu orokorretan sartuta daudelako, eta, beraz, Gazte Planaren benetako eragina txosten honetan jasotakoa baino handiagoa izango litzateke.

Alde horretatik, V. Gazte Planaren esparruan egindako ekintzetan gauzatutako aurrekontuaren zenbateko osoa (gazteria ardatz hartuta) 634,0 milioi eurokoa da Plana indarrean egongo den lehen bi urteetarako. Zehazki, 2022an 294,3 milioi euro egikaritu dira, eta 2023an 339,7 milioi euro. Emaidza horiek hasierako aurreikuspenarekiko % 97,9ko eta % 94,9ko betetze-maila adierazten dute, 2022 eta 2023rako, eta biurtekorako batez bestekoa % 96,3koa da. Horrela, V. Gazte Planaren esparruan 2022 eta 2023 artean garatutako jardueretarako programatutako aurrekontuaren gauzatze-maila handia egiaztatzen da.

Ekintza batzuetan programatutako aurrekontu osoa egikaritzea lortu ez bada ere, beste batzuetan, aldiz, programazioan aurreikusitakoaren gaineratik⁴ gauzatu da.

2.4 grafikoa V. Gazte Planean gauzatutako aurrekontua (gazteriarri begira), 2022-2023



² Ez da jaso egin ez diren ekintzei dagokien aurrekontuaren zenbatekoa.

³ Erabilitako erreferentzia % 13,9 da V. Gazte Plan osorako.

⁴ Aurrekontua handitu delako, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa hasierako aurreikuspena baino handiagoa delako, etab.


V. Gazte Planaren ardatz estrategikoen arabera, egikaritutako aurrekontuaren zenbateko handiena 1. ardatzari ("Emantzipazioa (Bizi)") dagokio, eta 452,2 milioi euroko gastua egin da 2022-2023 aldi osorako. Ondoren, 2. ardatza dago, "Garapena (Gozatu)", 100,5 milioi euroko zenbatekoarekin, eta, ondoren, 3. ardatza, "Eragina (Eraldatu)", 78,9 milioi euroko gastua metatzen duena, eta, azkenik, 4. ardatza, Behaketa eta Koordinazioari buruzkoa, 2,2 milioi euroko zenbatekoarekin aintzat hartutako biurtekoan. Azken ardatz horrek baliabide propioen bidez egindako jardueren bolumen handia hartzen du barne, eta ekintza horien eragina ez litzateke islatuko ardatz horri atxikitako aurrekontu gauzatuaren zenbatekoan.

Erantsitako grafikoak aurrekontua zenbateraino gauzatu den jasotzen du hasierako programazioari dagokionez. Azpimarratzekoa da erregistratutako gauzatzea oso handia izan dela V. Gazte Planaren ardatz bakoitzean, eta 2. ardatzean (% 104,2) eta 3. ardatzean (% 112,5) hasieran aurreikusitako aurrekontua baino gehiago gauzatu da. Era berean, aipagarria da 1. ardatzean erregistratutako exekuzio-maila (% 92,6), aldiz, Behaketa eta koordinazioa ardatzean⁵ gauzatze-maila txikiagoa izan da (% 61,4).

2.4 taula V. Gazte Planaren ardatzen arabera gauzatutako aurrekontua (gazteriarri begira) (eurotan), 2022-23

	2022	2023	Guztira 2022-2023	
			Zenbatekoa (€)	%
1. ardatza. Emantzipazioa (Bizi)	200.828.771,2	251.425.661,2	452.254.432,4	71,3
2. ardatza. Garapena (Gozatu)	50.462.421,3	50.057.424,2	100.519.845,5	15,9
3. ardatza. Eragina (Eraldatu)	42.453.480,6	36.528.824,7	78.982.305,3	12,5
4. ardatza. Behaketa eta koordinazioa	585.635,5	1.667.883,3	2.253.518,8	0,3
Guztira	294.330.308,6	339.679.793,4	634.010.102,0	100,0

2.5 grafikoak V. Gazte Planeko ardatzen arabera programatutako eta gauzatutako aurrekontua (eurotan), Guztira 2022-2023



⁵ Funtsean, ekintza baten ondorioz (proiektu pilotuak eta gazteen emantzipazioaren arloko beste ekimen eta kanpaina batzuk), soilik 705.114 euro egikaritzea lortu zuen 2023an aurreikusitako 2.100.000 euroetatik, Barakaldoko Udalarekin egindako hitzarmena 2023aren amaieran formalizatu zelako, eta, beraz, gauzatutako gastua aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da, ekintza horren eragile arduradunarekin adostuta.

V. Gazte Planaren jardun-arloen arabera, 2022tik 2023ra egindako gastuaren zatirik handiena Gizarte Kohesioa (% 28,0), Enplegua (% 27,8), Etxebizitza (% 15,5) eta Hezkuntza (% 13,6) arloetan kontzentratzen da. Gainera, adierazi behar da biurtekoan aurreikusitakoaren gainetik gauzatu dela Enplegua, Berdintasuna, Aniztasuna, Osasun Integrala, Hezkuntza eta Kultura eta Euskara arloetan, eta betearazpen-maila txikiena Erresilientzia⁶ arloan izan dela (% 15,7).

2.5 taula Gauzatutako aurrekontua, V. Gazte Planeko arloen arabera, 2022-2023

	2022	2023	Guztira 2022-2023	
			Zenbatekoa	%
1. Enplegua	83.240.589,6	92.961.683,3	176.202.272,9	27,8
2. Etxebizitza	55.494.271,6	42.522.035,3	98.016.306,9	15,5
4. Kohesioa	61.979.846,0	115.453.620,1	177.433.466,1	28,0
5. Erresilientzia	114.064,0	488.322,5	602.386,5	0,1
6. Osasun integrala	4.471.484,0	3.585.081,0	8.056.565,0	1,3
7. Hezkuntza	43.287.500,3	42.885.228,1	86.172.728,4	13,6
8. Kultura eta Euskara	2.557.996,0	3.074.705,7	5.632.701,7	0,9
9. Aisia eta denbora libre	145.441,0	512.409,4	657.850,4	0,1
10. Partaidetza	2.085.791,7	2.341.838,9	4.427.630,7	0,7
11. Berdintasuna	5.970.850,7	1.892.786,7	7.863.637,4	1,2
12. Aniztasuna	31.217.950,5	30.656.600,8	61.874.551,3	9,8
13. Bizikidetzak	922.664,2	732.464,6	1.655.128,8	0,3
14. Klima-aldaketa	2.256.223,5	905.133,8	3.161.357,3	0,5
15. Ezagutza eta lankidetzak	585.635,5	1.667.883,3	2.253.518,8	0,4
Guztira	294.330.308,6	339.679.793,4	634.010.102,0	100,0

* "Errenta" arloa ez da sartu, ez baitu jarduketarik erregistratu 2022an eta 2023an. Hala ere, aipatu behar da 2024ko programazioan badagoela eremu horretan jasotako ekintza bat.

Bestalde, erantsitako koadroan, 2022tik 2023ra bitartean gazterian egindako gastu-bolumen handiena duten ekintzen zerrenda jasotzen da.

2.6 taula Gastu handieneko 10 ekintzak (gazteriari begira), 2022-2023

	Guztira 2022-23
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria	95.385.887
Gazteek etxebizitza eskuratzeko aukera bultzatzea, etxebizitza berriak, zuzkidura-bizitokiak edo bitartekaritza-programak sustatuz	69.109.904
Unibertsitateko beka orokorra eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza	61.761.606
Familiarentzako laguntza-lerroak, ardurapeko seme-alaben arabera	46.750.753
«Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana-NextGeneration EU» ren esparruko ikerketa-programa	36.016.958
Gaztelagun programa, alokairua ordaintzen laguntzeko	27.123.172
Ikastetxe pribatu eta publikoetako prestakuntza	25.008.234
Gazte Justiziako V. Planean (ikastetxeak) aurreikusitako ekintzak abian jartzea	21.862.174
Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa	19.128.170
Herri-administrazioetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzak, «EB-NextGeneration EUK finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren» esparruan.	16.644.876

⁶ Emantzipazio-prozesuan aholkularitza- eta laguntza-ekintzak babestea, oraindik hasierako fasean baitaude.

Atal hau V. Gazte Planean inplikaturako eragile bakoitzak 2022tik 2023ra bitartean egindako gastuaren xehetasunarekin osatzen da (gazteriari begira), eta Lanbidek egindako gastua nabarmentzen da.

2.7 taula V. Gazte Planean inplikaturako eragileek gauzatutako aurrekontua, gazteria ardatz hartuta (euroak), Guztira 2022-2023


Saila/Zuzendaritza	Guztira 2022-2023	
	Zenbatekoa (€)	%
Lehendakaritza	13.276.845 €	2,1
Kanpo Harremanen Zuzendaritza	80.000 €	0,0
Gazteria Zuzendaritza	12.876.845 €	2,0
Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza	160.000 €	0,0
Europar Batasunerako Zuzendaritza	160.000 €	0,0
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	9.420.397 €	1,5
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza	2.501.775 €	0,4
Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza	604.070 €	0,1
Kultura Ondarearen Zuzendaritza	418.494 €	0,1
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza	1.345.400 €	0,2
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza	4.550.658 €	0,7
Garapen Ekonomikoa, Jasangarritasuna eta Ingurumena	16.490.216 €	2,6
Basquetrade	6.877.572 €	1,1
Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza	1.596.103 €	0,3
Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuz.	914.885 €	0,1
Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	2.572.811 €	0,4
Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza	431.001 €	0,1
Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza	1.352.615 €	0,2
HAZI	2.745.229 €	0,4
Hezkuntza Saila	149.238.794 €	23,5
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza	13.362.169 €	2,1
Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza	1.726.569 €	0,3
Ikerketa Zuzendaritza	33.936.982 €	5,4
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza	76.547.915 €	12,1
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza	165.410 €	0,0
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza	23.499.749 €	3,7
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	96.449.085 €	15,2
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Elankidetza)	80.000 €	0,0
Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza	839.989 €	0,1
Familia eta Haurren Zuzendaritza	59.143.471 €	9,3
Justizia Zuzendaritza	27.235.586 €	4,3
Migrazio eta Asilo Zuzendaritza	4.317.117 €	0,7
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	2.929.020 €	0,5
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea	1.903.902 €	0,3
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	98.100.782 €	15,5
Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	84.475 €	0,0
Etxebizitzarako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuz.	98.016.307 €	15,5
Osasun Saila	6.804.627 €	1,1
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza	5.872.917 €	0,9
Osakidetza	931.710 €	0,1
Segurtasun Saila	616.904 €	0,1
Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza *	0 €	0,0
Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza	133.600 €	0,0
Ertzaintzaren Zuzendaritza*	0 €	0,0
Trafiko Zuzendaritza	483.304 €	0,1
Lan eta Enplegu Saila	243.162.140 €	38,4
Gizarte Ekonomia Zuzendaritza	1.432.132 €	0,2
Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza	5.797.789 €	0,9
Lanbide	235.850.696 €	37,2
Osalan – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	81.524 €	0,0
Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	450.314 €	0,1
Merkataritza Zuzendaritza	225.180 €	0,0
Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	44.062 €	0,0
Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	181.072 €	0,0
Guztira	634.010.102 €	100,0

* Egindako ekintzak gastu orokorretan sartuta daude, eta, beraz, ez da zehazten egikaritutako aurrekontuaren zenbatekoa.

2.3. Helburuen betetze-maila


Eraginkortasunaren ikuspegitik, 2022tik 2023ra bitartean garatutako jardueretarako ezarritako helburuen betetze-maila handia da, kontuan hartuta gauzatutako ia ekintza guztiek (% 99) betetzen dituztela ezarritako helburuak, informatzaileek egindako balorazioaren arabera. Zehazki, jardueren % 91k lortu du ezarritako helburu guztiak betetzea, eta % 8k, neurri batean. Ekintza batean bakarrik ezin izan dira ezarritako helburuak bete, eta kasuen % 1ean ezin izan da helburuen betetze-maila ezarri, ebaluazioa egiteko unean informaziorik ez zegoelako.

2.6 grafikoa V. Gazte Planean ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasun-maila (%), batez bestekoa 2022-2023



Ekintza bakoitzerako ezarritako xede-balioa betetzeari dagokionez (ekintzen lorpen-maila neurtzeko adierazlerik garrantzitsuenak da), gauzatutako ekintzen % 79k betetze-maila altua lortu dute, % 6k ertaina, eta gainerako % 15ek betetze-maila txikia.


2.7 grafikoa V. Gazte Planeko xede-balioa betetzeko eraginkortasun-maila (%), batez bestekoa 2022-2023



2.4. Estaldura-maila

Jardueren estaldura-mailan zentratuta, eta biztanleria gaztearengan duen fokua arabera, 2022tik 2023ra bitartean egindako ekintza guztietatik gehienak gazteei soilik zuzendu zaizkie (guztizkoaren % 69), eta heren bat inguru (% 31) kolektibo gehiagori zuzendu zaizkie, gazteez gain.

2.8 grafikoa V. Gazte Planean gauzatutako ekintzen banaketa, fokua arabera (%). Batez bestekoa, 2022-2023



Azkenik, erantsitako koadroak irismen handieneko jarduketetarako 2022ko eta 2023ko onuradunen bolumena jasotzen du, Gazteaukera ataria edo Gazte Txartela nabarmenduz, adibidez.

2.8 taula V. Gazte Planean gauzatutako ekintzen onuradunak, 2022-2023

	2022	2023
Gazteaukera ataria (bisitak)	1.327.207	1.741.207
Gazte Txartela (jaulkitako txartelak)	315.199	324.587
Gaztelagun programa, alokairua ordaintzen laguntzeko (35 urtetik beherako onuradunak)	4.638	6.629
Droga-kontsumoaren arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programak (gazteak)	20.648	62.198
Elkarrekin Bonu Programa hezkuntza-eremuan (ikasleak)	23.612	11.852
"Don 't be dummy! Zuk ez duzu ordezkorik/Para ti no hay repuestos" (batxilergoko ikasleak)	12.451	4.796
"Gerta dakizuke/Te puede pasar" programa (bigarren hezkuntzako 2. zikloko ikasleak)	9.295	10.234
GIB/hiesa, STI eta nahi gabeko haurdunaldia prebenitzeko programa (nerabe eta gazte ikasleak)	9.600	14.200
Nerabeak (neskak eta mutilak) Papilomaren birusaren aurka txertatzeko programa (nerabeak)	37.920	30.447
Gizalegearen aurkako jokabideak prebenitzeko jarduerak ikastetxeetan: arriskuak Interneten, eskola-jazarpena, genero-indarkeria, drogen kontsumoa, bide-segurtasuna, gorroto-delituak, gazte-taldeak, kiroleko indarkeria (Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleak)	10.234	17.056

2.5. V. Gazte Planaren adierazleak

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren esparruan definitutako adierazleen zerrenda jasotzen da. Kontuan hartutako adierazle bakoitzerako, tarteko ebaluazio-txosten hau egiten den egunean eskuragarri dagoen azken balioa zehazten da, baita 2026rako ezarritako helburu-balioari dagokionez lortutako betetze-maila ere.

2.9 taula V. Gazte Planaren adierazleen taula

ADIERAZLEA	Eskuragarri dagoen azken datua	2026ko helmuga	Betetze-maila
1. Emantzipazio-tasa; 18-34 urteko gazteak	% 34,2 (2022)	>% 40	●
2. Emantzipatzeko batez besteko adina	29,3 urte (2022)	<29 urte	●
3. Okupazio-tasa; 16-29 urteko gazteak	% 43,0 (2023)	>% 45	●
4. Langabezia-tasa; 16-29 urteko gazteak	% 12,6 (2023)	<% 14	●
5. Aldi baterako kontratua; 16-29 urteko gazteak	% 46,0 (2023)	<% 50	●
6. Lanaldi partzialeko tasa; 16-29 urteko gazteak	% 32,4 (2023)	<% 30	●
7. Hileko batez besteko soldata garbia; 18-29 urte	1.416 € (2022)	>1.300 €	●
8. Pobrezia errealearen tasa gazteen etxebizitzetan	% 12,7 (2022)	<% 15	●
9. Osasunarekiko gogobetetasuna; 15-29 urte	7,2 puntu (2023)	>8 puntu	●
10. Antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia; 15-29 urte bitarteko gazteak	% 18,5 (2023)	<% 8	●
11. Substantzien abusuagatiko tratamendu-hasieraren tasa; 15-29 urte bitarteko gazteak	1,9x1000 (2020)	<2 x 1.000	●
12. Eskola uzte goiztiarraren tasa; 18-24 urte	% 5,6 (2022)	<% 5	●
13. Goi-mailako hezkuntzaren tasa; 30-34 urte	% 65,9 (2022)	>% 60	●
14. Zientzia eta teknologian graduatutako emakumeen tasa, 35 urtetik beherakoen guztizkoarekiko	% 33,1 (2022)	>% 35	●
15. Hirueletasun-tasa; 15-29 urte bitarteko gazteak	% 57,6 (2022)	>% 55	●
16. Euskararen erabilera lagunartean; 16-24 urte	% 37,8 (2021)	>% 38	●
17. Kirol-praktika erregularra; 15-29 urte	% 52,8 (2022)	>% 60	●
18. Boluntariotza-tasa; 15-29 urteko gazteak	% 13,8 (2023)	>% 12	●
19. Emakumeen aurkako indarkeria-tasa; 15-29	9,8 x 1.000 (2023)	<8 x 1.000	●
20. Gaez bakarrik ibiltzeko beldurra duten emakumeen tasa; 15-29 urteko emakumeak	% 72,1 (2022)	<% 50	●
21. Lana lortzeko desberdintasunaren pertzepzioa; 15-29 urte bitarteko emakumeak	% 55,4 (2023)	<% 50	●
22. Bizikletaz mugitzea; 15-29 urteko gazteak	% 10,5 (2023)	>% 25	●

Betetze-maila

- 2026ko helburua beteta
- 2026ko helburua betetzetik hurbil
- 2026ko helburua betetzetik urrun



3.

**BALORAZIOA ETA
GOMENDIOAK**

3. Balorazioa eta gomendioak

3.1. Ebaluazio-irizpideen balorazioa

Taula honek Eusko Jaurlaritzaren 2022-2026 aldirako V. Gazte Planaren betetze-mailari buruzko balorazioa jasotzen du, ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera. Horietako bakoitzerako, ondorio garrantzitsuenak aurkezten dira.

3.1 taula Ebaluazio-irizpideen betetze-maila

Ebaluazio-irizpidea	Betetze-maila	Ondorioak
Ekintzak gauzatzea <i>Programatutako ekintzak gauzatu izana</i>		262 eta 265 ekintza egin dira 2022an eta 2023an, hurrenez hurren. Oro har, 2022-2023 biurtekorako programatutako jardueren % 94,6 egin da.
Aurrekontua gauzatzea <i>Aurrekontuaren gauzatze-maila</i>		Gazte Plana indarrean egon den lehen bi urteetan, 634,0 milioi euroko aurrekontua gauzatu da gazteriari begira. Aurreikusitako aurrekontuarekiko % 96,3ko gauzatze-maila dakar.
Eraginkortasuna <i>Lortu nahi diren helburuen eta xede-balioetan lortutako emaitzen arteko erlazioa</i>		Gauzatutako ekintzen % 99k hasieran ezarritako helburuak bete ditu. (% 91 bere osotasunean eta % 8 neurri batean). Ezarritako xede-balioak betetzeari dagokionez, egindako jardueren % 79k betetze-maila altua lortu du.
Estaldura <i>Gazteei bakarrik zuzendutako ekintzak</i>		Gauzatutako ekintzen % 69 gazteei soilik zuzenduta daude.

BETETZE-MAILA		
ALTUA	ERTAINA	BAXUA
		

3.2. Gomendioak

Azken atal honek Eusko Jaurlaritzaren 2022-2026 V. Gazte Planerako hobekuntza-ildo nagusiak eta gomendioak jasotzen ditu, tarteko ebaluazioan lortutako emaitzetatik abiatuta, eta 2022 eta 2023 ekitaldietako ebaluazio-datuak oinarri hartuta. Helburua V. Gazte Planaren garapenean aurrera egitea da, tarteko ebaluazio honetan V. Gazte Planaren indarraldia amaitu arte landu beharreko hobekuntza-puntuak aurreratuz.

Jarraian, kanpoko talde ebaluatzaileak egindako gomendioak adierazten dira:

- Elkarrizketa egonkorra izatea Planaren esparruan sartutako jardueri buruzko informazioa emateko ardura duten pertsonekin, datuak behar bezala eta ezarritako epeen barruan ematen direla bermatzeko.
- Kolaboratzaileen balizko aldaketak antzematea, haiekin komunikazio egonkorra edukiz, Gazte Planaren aplikazio informatikoan sartzeko baimenak garaiz kudeatu ahal izateko.
- Kolaboratzaileek emandako informazioaren kalitatea hobetzea, honako arlo hauek zorroztasun eta sistematika handiagoz betetzen saiatuz:
 - ezarritako xedeetan lortutako balioak, zehaztutako helburuen betetze-maila ebaluatzeko erreferentziazko adierazle gisa.
 - kolaboratzaileek planean jasotako ekintza bakoitzerako ezarritako ebaluazio-adierazle gehigarrietan lortutako balioak.
 - egindako jarduketetan izandako onuradunen kopurua, ahal den neurrian sexuaren arabera bereizita, martxoaren 6ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legean ezarritako baldintzak betez.